

Pozik zegoen gereziondo zaharra. Ez zen gutxiagorako. Urteak ziren karnabak bere babesera joaten ez zirela. Garai batean bai. Etxerik ez zenean inguruan, asko ziren bera bisitatzera joaten ziren txoriak. Aspaldian, ordea, aldatua zegoen dena. Faltan botatzen zituen lagunak gereziondo zaharrak.

Egun hartan ere han zebiltzan guztiak hegan. Txolarre arrak ere hasiak ziren lurreko dantzak egiten, ipurdia jaitsi eta isatsa tente jarri. Udaberria bete-betea sartua zen herrian.

Etxeko horman gora hasiak ziren landareak igotzen. Neguan hostoak galdu bazituzten ere, landare igokariak paretan gora ikusten ziren berriz ere, eta iratzeak bizilagunaren balkoipean ikus zitezkeen zintzilik.


Egun hartako guztia ikusia zuela uste zuenean, baina, Iratik sekulako ustekabea hartu zuen. Animalia txiki eta marroi bat ari zen saltoka etxe parean... baina, zer zen hori? Apo bat herri erdian??

- Egun on, apoa!! Zer egiten duzu zuk herri erdian?

Apoak begi gorri eta handiekin begiratu zion Iratiri, eta esan zion:

- Apoen ugal garaia da, Irati. Etxeak egin aurretik, zuhaitz aurrean erreka zegoen, eta urtero etortzen ginen arrautzak jartzera hona. Ordutik ez nintzen ausartu hemendik pasatzera. Denak etxean zaudetela ikusita, ordea, berriz etortzea erabaki dut.

Apoak erakutsi zion Iratiri mundua beti ez zela izan berak ezagutu zuen modukoa. Etorkizunean ere aldatzen joango zen. Onerako, espero zuen!!



Ausartu zure marrazkia sortzera!

Pozik zegoen gereziondo zaharra. Ez zen gutxiagorako. Urteak ziren karnabak bere babesera joaten ez zirela. Garai batean bai. Etxerik ez zenean inguruan, asko ziren bera bisitatzera joaten ziren txoriak. Aspaldian, ordea, aldatua zegoen dena. Faltan botatzen zituen lagunak gereziondo zaharrak.

Egun hartan ere han zebiltzan guztiak hegan. Txolarre arrak ere hasiak ziren lurreko dantzak egiten, ipurdia jaitsi eta isatsa tente jarritz. Udaberria bete-betea sartua zen herrian.

Etxeko horman gora hasiak ziren landareak igotzen. Neguan hostoak galdu bazituzten ere, landare igokariak paretan gora ikusten ziren berriz ere, eta iratzeak bizilagunaren balkoipean ikus zitezkeen zintzilik.

Egun hartako guztia ikusia zuela uste zuenean, baina, Iratik sekulako ustekabea hartu zuen. Animalia txiki eta marroi bat ari zen saltoka etxe parean... baina, zer zen hori? Apo bat herri erdian??

- Egun on, apoa!! Zer egiten duzu zuk herri erdian?

Apoak begi gorri eta handiekin begiratu zion Iratiri, eta esan zion:

- Apoen ugal garaia da, Irati. Etxeak egin aurretik, zuhaitz aurrean erreka zegoen, eta urfero etortzen ginen arrautzak jartzera hona. Ordutik ez nintzen ausartu hemendik pasatzera. Denak etxean zaudetela ikusita, ordea, berriz etortzea erabaki dut.

Apoak erakutsi zion Iratiri mundua beti ez zela izan berak ezagutu zuen modukoa. Etorkizunean ere aldatzen joango zen. Onerako, espero zuen!!

